

AZAROKAK

25



... **MUGITU** eta emakumeen kontrako indarkeria mota ezberdinen konplizeak izateari utz diezaiotela,
MUGITU eta aurrera egin dezatela oinordetzan jasotako pribilegioei uko egiteko,
MUGITU emakumeen eta gizonen arteko asimetria eta desparekotasuna birsortzen dituzten botere guneetatik,
MUGITU benetako berdintasunaren aldeko borrokari zein jardunari egiten zaizkien gero eta eraso gehiagoren aurrean,
MUGITU emakumeak etengabe berbiktimizatzen dituzten kuestionamendu matxisten aurrean,
MUGITU genero-estereotipoak birsortzen ez dituzten maskulinitate-ereduetara,
MUGITU izututa dabilzan emakumeen bidegabekeria-egoera larriaren aurrean.
Eta ez daitezela mobilizazioetan bakarrik aritu, ez ditzatela babestu bakarrik indarkeria jasaten duten emakumeak.

MUGI DAITEZELA!

